

# Cáritas Ermua-Mallabia

**1965. urtean jaio zen  
Cáritas Ermua-Mallabia  
eta azken kanpainan  
7.500 euro batu zituzten.**

- **Zein urtetan sortu zen taldea?**  
Gutxi gora behera, orain dela 45 urte.
- **Zenbat kide zarete?**  
25 lagun gara taldean.
- **Zeintzuk dira zuen helburuak?**  
Kristau alkartean bakoitzak bere egitekoa dauka. Gurea, gure inguruan egoera latzenez daudenengandik hurbil egotea da, eginbehar horretan, beti ez dugula asmatzen jakinda. Elkartasunez jokatu, diruz lagunduz eta,aldi berean, jendeari entzunez, lagun eginez, bidegabekeriak salatuz eta gizarte sentsibilizatzea eraginez, guztiontzako mundu zuzenagoa eraiki dezakegula, Jaungoikoaren Erreinua gure artean agertzeraz eman dezakegula sinesten dugu. Gizon eta emakume guztiak dira gure jardunaren jasotzaile, arraza eta erlijio bereizketarik egin barik.
- **Noiz batzen zarete eta non?**

Ermua-Mallabiko boluntario guztiak hilean behin batzen gara Ermuko parrokiako lokaletan. Gainera, egitekoaren arabera, boluntarioak euren arloko kideekin sarriago batzen dira. Hiruhilekoan behin, Berriz eta Zaldibarreko boluntarioekin batzen gara eta gainera, urtean zehar, erretiro eta elkarraldiren bat izaten dugu Bikaritzza eta Elizbarru-



ti mailan. Bizkaiko Elizbarrutiko gizarte-karitate arloko erakundea den Bizkaiko Caritasen barruan gaude eta horregaitik, ez dugu bakarka jarduten. Bi mila boluntariotik gora dihardugu Bizkaia osoan, behargin kontratatuen laguntzaz batera, prestasuna, ilusioa, erantzukizuna, lanerako gaitasuna... eskainiz.

- **Ze jarduera izan duzue urtean zehar?**

Harrera zerbitzua emateaz gainera, bigarren eskuko arropen denda (Ekorropa) daukagu eta josteta eta sukaldaritza tailerra. Herriko beste talde batzuekin batera, Lankidetzaz eta Garapenerako Kontseiluan parte hartzen dugu. Hori dela eta, foro horretan era-

bakitzen diren jardueren prestaketan laguntzen dugu. Gabonetan postontziz-postontzi gutunak banatzen ditugu gure lanaren barri emanaz, aurreko urtean batutakoa zertan erabili dugun zehaztuz eta egitasmo berrientzako dirua eskatuz. Honako honen bitartez, eskerrik eman gura dugu aurtengo Gabonaldiko kanpainan batu ditugun 7.523 euroengaitik eta gehien behar dutenei laguntzeko izango direla adierazi.

- **Zuekin harremanetan jartzeko?**

Norbaitek berri gehiago behar badu edo lagundu gura badigu, etor dadila parrokiako lokaletara. Han jasoko du informazioa eta Caritaseko boluntarioen batekin hartu emanetan jarriko dute.

**SAN ANTONIO**  
OKINDEGIA  
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63  
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

**AIZ**  
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**ZABAL**

**ERMUA**

**GARAGARDOTEGIA**  
CERYECERTIA  
NCHCN

**ZYTİK**

OTARTEKO eta  
IMPORTAZIOZKO  
GARAGARDOtan  
berezitasuna

943 17 39 78